



GAZTEEN EUSKAL
BEHATOKIA
OBSERVATORIO VASCO
DE LA JUVENTUD

Gazteria, sare sozialak eta informazioa

EUSKADI 2025

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ONGIZATE, GAZTERIA ETA
ERRONKA DEMOGRAFIKOAREN SAILA

DEPARTAMENTO DE BIENESTAR,
JUVENTUD Y RETO DEMOGRÁFICO

Helburua eta metodologia

Azterketaren helburua

Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko gazteek sare sozialen erabilerari eta gaurkotasuneko informazioa eskuratzeko moduari buruz dituzten lehentasunak eta kezkek aztertzea.

Inkestaren metodologia

2025ean bildutako datuak, online autoadministratutako galdera-sortak eta telefono bidezko elkarrizketak konbinatzen dituzten bi inkesten bidez (4.399 parte-hartzaile guztira).

Datuen analisisia

Sexuaren, adinaren eta lurralde historikoaren arabera haztatutako datuak. Ikerketaren diseinuak eta analisiak emaitza esanguratsuak eta fidagarriak bermatzen ditu, % \pm 2,1eko errore-marjinarekin.

Azterketaren egilea

Gazteen Euskal Behatokia.





Sare sozialen erabilera

Eguneroko erabilera-tasa handia

Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen % 98,2k sare sozialen bat erabiltzen du egunero. Horrek agerian uzten du parte-hartzea ia unibertsala dela, sexuaren arabera alde nabarmenik gabe.

Plataforma anitzen erabilera

% 71,7k hiru sare sozial edo gehiago erabiltzen ditu egunero, mezularitza-aplikazioak kontuan hartu gabe.

Gero eta gehiago erabiltzen dira

Hazkunde handia sare sozialen erabileran, Z belaunaldiak gidatua, natibo digitala eta smartphonarekin sozializatutakoa.

Hizkuntzak

































Gaztelera da hizkuntza nagusia sare sozialetan Euskadiko gazteen artean; % 96k baino gehiagok erabiltzen du.

Gehiengoak ingelesa ere erabiltzen du (% 58,9), batez ere 20 eta 24 urte bitarteko pertsonak.

Euskararen erabilerak gora egin du (% 43,6). Hedatuagoa dago emakumeen artean eta Gipuzkoan bizi diren pertsonen artean.

Sare sozial erabiliak

2025ean egunero gehien erabiltzen diren 10 sare sozialak

Emakumeak			Gizonak		
15-19	20-24	25-29	15-19	20-24	25-29
					
					
					
					
					
					
					
					
					
					

Egunero gehien erabiltzen diren sare sozialak

Spotify edo musika entzuteko beste batzuk (% 78,2), Instagram (76,8 %), YouTube (% 54,8) eta TikTok (% 44,6) dira egunero gehien erabiltzen diren sare sozialak.

Facebook-en erabilerak behera egiten jarraitzen du, eta X-ek eta BeReal-ek ere erabiltzaileak galdu dituzte.

Sare sozial gogokoena

Sare sozial bakarrera konektatu ahalko balira, gazteen ia erdiek Instagram plataforma aukeratuko lukete.

Instagramen atzetik, emakumeek TikTok dute nahiago; gizonak, aldiz, YouTube.





Edukiak: jarraipena eta sorkuntza

Gizonek eta emakumeek eduki desberdinekiko interesa agertzen dute

Gizon gazteei gehiago interesatzen zaizkie kirolak eta bideojokoak, eta emakumeei, berriz, estilismoarekin (moda, makillajea...), bidaiekin eta bizitzeko moduarekin, aisiarekin eta ongizatearekin lotutakoak.

Edukien sorkuntza

Gazteen ehuneko txiki batek (% 7,4k) baino ez du aktiboki sortzen edukia, eta gizonak emakumeak baino zertxobait aktiboagoak dira sare sozialetan edukiak sortzen (% 8,3 eta % 6,4 hurrenez hurren).

Influencer, youtuber edo gamerren jarraipena

Hamar gaztetik seik *youtuber, influencer edo gamerren* bat jarraitzen dute (% 61,1). Emakumeen % 65,2k eta gizonen % 57,5ek jarraitzen dute norbait Interneten.

Sare sozialen inguruko kezkak

Gehien kezkatzen dituenak

- ✓ Informazio, argazki edo bideo konprometituak beren baimenik gabe zabaltzea (% 66,6)
- ✓ Iruzurrak edo maulak pairatzea (% 48,7)
- ✓ Norbaitek online identitatea ordezteak (% 48,1)

Alde handiak sexuaren eta adinaren arabera

Informazio edo irudi konprometituak beren baimenik gabe zabaltzeak 15 eta 19 urte bitarteko emakumeak kezkatzen ditu bereziki (% 81,3); baita Interneten sexu-jazarpena jasateak (% 51,5) eta haiei buruz sarean dagoen informazioak etorkizunean kalte egiteak (% 51,0).

Pribatutasuna

Gazteen % 72,7k profil pribatuak ditu, eta eduki guztiak mugatuta ditu. % 19,6k profil partzialki publikoak ditu, eta % 6,6k soilik ditu profil guztiz publikoak. Emakumeak eta 15 eta 19 urte bitarteko taldea dira gehien babesten direnak.





Esperientzia negatiboak sare sozialetan

Ziberjazarpenaren hedapena

Gazteen % 21,6 sare sozialetan jazarrita sentitu da. Emakumeek (% 26,5) gizonen (% 16,9) baino ziberjazarpen handiagoa jasaten dute.

Sexu-jazarpena sare sozialetan

Emakume gazteen % 20,3k sexu-jazarpeneko egoeraren bat bizi izan dute sare sozialetan, eta gizon gazteen % 9,2k. Emakumeen beste % 18,4k jazarpen matxista edo misoginoa jasan dute.

Beste esperientzia negatibo batzuk sare sozialetan edo Interneten

- ✓ Beste pertsona batzuk iraindu edo umiliatu dituztela ikusi dute (% 84,5)
- ✓ Sexu-izaerako mezuak, argazkiak edo bideoak jaso dituzte beren baimenik gabe (% 31,7)
- ✓ Iruzurren edo maularen bat jasan dute (% 24,7)
- ✓ Irainak jaso dituzte beren fisiko edo itxuragatik (% 21,0)
- ✓ Beste pertsona batzuek beren identitatea ordezkatu dute (% 6,0)
- ✓ Beste pertsona batzuek beraien irudiak manipulatu dituzte adimen artifizialarekin beren erreputazioa kaltetzeko (% 2,7)

Gaurkotasuneko informazioa eskuratzea

Gaurkotasun-albisten informazio-iturriak

Sare sozialak dira gazteen informazio iturri nagusia. Euskadiko lau gaztetik hiruk eguneroko albisteak sare sozialen bidez jarraitzen ditu (% 74,6). % 38,9k telebistan jarraitzen ditu albisteak. Online prentsara egunero % 34,8 sartzen da, eta % 4,5ek soilik irakurtzen du egunero paperezko prentsa.

Informatzeko erabilitako sare sozial nagusiak


Sare edo kanal bakoitza egunero edo ia egunero informazioa eskuratzeko erabiltzen duten gazteen ehunekoa:

- ✓ INSTAGRAM (% 60,1)
- ✓ WHATSAPP (% 41,0)
- ✓ TIKTOK (% 37,7)
- ✓ YOUTUBE (% 22,0)
- ✓ X (% 20,7)

Albiste fatsuak edo *fake newsen* eraginpean egotea

Gazteen % 77,6k adierazi du azken astean gutxienez egun batez egon dela sare sozialetan albiste fatsuaren eraginpean.

Gazteen % 13,4k soilik adierazi du oso seguru sentitzen dela albiste fatsuak identifikatzen, gizonek (% 19,0) emakumeek (% 7,2) baino gehiago.





Eduki polemikoak eta horien eragina

Eduki polemikoen eguneroko esposizioa

	Guztira	Emakumeak	Gizonak
Immigrazioaren aurkako iruzkinak	% 30,0	% 23,7	% 36,0
Demokraziaren edo erakunde demokratikoen funtzionamenduari egindako kritikak	% 28,2	% 24,0	% 32,3
Genero-berdintasunerako politiken aurkako iruzkinak	% 23,5	% 20,0	% 26,7
Indarkeriazko jarrerak justifikatzeko iruzkinak	% 18,6	% 17,1	% 20,1
Gu kontrolatzeko konspirazioei buruzko edukiak	% 13,7	% 11,0	% 16,4
Klima-aldaketa ukatzeko edukiak edo iruzkinak	% 10,0	% 7,8	% 12,0
Anorexia eta muturreko argaltasuna sustatzen duten edukiak	% 7,4	% 11,1	% 4,0
Beren burua zauritzeko aholkuak	% 2,0	% 1,5	% 2,5

Hausnarketa kritikoa

Esposizioak, askotan, hausnarketara eramaten du eta kontrako ikuspegiak indartzen ditu; gazte gehienek, emakumeek eta gizonek, berdintasuna eta demokrazia babesten dute eta genero-indarkeria errekonozitzen dute.

Interneten beste erabilera batzuk

Adimen artifizialaren erabilera

Gazteen % 81,5ek adimen artifizialeko txatbotak eta adimen artifizial sortzaileko tresnak erabili ditu berriki, batez ere ikasleek.

Higiezin plataformak


% 43,8 higiezin online plataformetara sartu zen, batez ere 25 eta 29 urte bitarteko pertsonak (hirutik bi).

Helduentzako edukiak

% 22,2k eduki sexuarekiko plataformetara jo zuen, batez ere gizonak (% 36,5ek, emakumeen % 7rekin alderatuta).

Jokoarekin eta apustuekin lotutako jarduerak

% 8,4k bideo-jokoetan mikro ordainketak egin zituen, eta % 4,3k online apustuarekin hartu zuen parte; gizon gazteek emakume gazteek baino gehiago.





Sare sozialak erabiltzearen ondorioen gaineko sentipena

Hautemandako ondorio negatiboak

ERABAT ADOS + ADOS	Guztira	Emakumeak	Gizonak
Internet eta sare sozialek harreman sozialak azalekoagoak izatea eragin dute	% 85,2	% 88,1	% 82,6
Sare sozialen erabilerak eragin negatiboa du ikasketa- edo lan-errendimenduan	% 81,0	% 82,7	% 79,6
Sare sozialen erabilerak eragin negatiboa du osasun mentalean	% 80,8	% 84,4	% 77,5
Internet eta sare sozialak erabiliz gehiago isolatzen zara	% 71,2	% 74,1	% 68,4

Hautemandako onurak mugatuak dira

ERABAT ADOS + ADOS	Guztira	Emakumeak	Gizonak
Sare sozialei esker errazagoa da lagunak egitea	% 51,2	% 48,7	% 53,4
Sare sozialetan erraza da edozein arazoren aurrean babes emozionala aurkitzea	% 33,8	% 32,9	% 34,1
Sare sozialek izan ditzaketen arriskuak asko puzten dira, esajeratzen dira	% 25,5	% 19,2	% 31,5

Emakumeek gizonek baino ondorio negatibo gehiago hautematen dituzte.